



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

1. Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2018.....	2
2. Ekintzailtzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2018.....	4
3. Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak – CTP 2018	6
4. Hirigune - Hiri merkataritzaren lankidetzeta, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa	7
5. Merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programa 2018	9
6. Merkataritzako bulego teknikoetarako laguntzak - 2018.....	11
7. Merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko bekak -2018	13
8. Merkataritzaren alorrean autonomoen, enpresen eta udalerrien ekintzailtza sustatzera bideratutako 2018ko laguntza-programa	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen programa –PTT 2018

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 10ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak 2018ko ekitaldirako arautzen eta iragartzen dituena (2018ko maiatzaren 23ko EHAA, 98. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 10ekoa

EBAZPENA, 2018ko azaroaren 21ekoa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakitera ematen baita 2018ko ekitaldian emandako laguntzen zerrenda. Laguntza haiek 2018ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituen Aginduak finkatzen duen esparruan eman ziren.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzako programa, erakunde horien helburuen eta/edo ahalmenen artean badago turismo-jarduera garatzea eta sustatzea, EA Eren turismo-lehiakortasuna sustatzeko, itzulgarriak ez diren dirulaguntzak baliatuta honako hauen moduko proiektuak egiteko:

- a) Turismoko lurralde-proiektuak helmugen erakargarritasuna hobetzen dutenak.
- b) Berrikuntzaren bidez eta turismo jasangarria eta arduratsua garatuz, helmugen kalitatea eta lehiakortasuna hobetuko duten proiektuak: Basquetour SAK sustatutako eta kudeatutako helmugen lehiakortasuna hobetzeko proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lurralde	Aurkeztuak	Onartuak	Onartutako aurrekontua	Azken dirulaguntza
ARABA	7	7	765.144,22	357.126,90
GIPUZKOA	15	13	1.054.723,22	520.398,18
BIZKAIA	14	10	1.313.153,11	406.474,74
TOTAL	36	30	3.133.020,55	1.283.999,82

Deialdira 36 erakunde aurkeztu ziren, eta 6 artxibatu egin dira atzera egiteagatik. Azkenik, erakunde



onuradunen kopurua 30ekoa izan da.

Ondoren aipatutako turismo-produktuekin lotutako 136 jarduera garatzen lagundu da: gastronomia, kultura, kostaldea, natura, bilerak eta pizgarriak (MICE), familia-turismoa, esperientziala eta bestelako tipologiak (Basque Mountains, City Breaks, Txakoliaren ibilbidea, etab.).

Era berean, jarduera horiek garatzeko eta kudeatzeko 39 lanpostu sortu/mantendu dira (32 emakumezko eta 7 gizonezko).

Bestalde, aipatu erakundeetatik 24ri laguntza eman zaio 29 langile kontratatzeko (6 gizonezko eta 23 emakumezko) haien eragin-eremuko enpresetan Helmugun Kalitateko Jardunbide Egokien Programa (540 enpresa), IKTen erabilera (152 enpresa) eta Europako Ekoetiketaren programa (32 enpresa) ezartzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Onartutako eskabide kopurua	31	30
Onartutako proiektu kopurua, produktu motaren arabera (gastronomia, bilerak (MICE), natura, kultura eta bestelakoak)	80	136
Turismoko produktuak garatu eta kudeatzeko sortu/mantendutako enplegua (zuzenean edo laguntza teknikoa)	36	39



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintzaitzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak - EMET 2018

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 10ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, turismo-enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko 2018ko ekitaldirako laguntzak arautu eta horien deialdia egiten duena (2018ko maiatzaren 23ko EHAA, 98. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 10ekoa

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2018ko maiatzaren 10eko Agindua

EBAZPENA, 2019ko otsailaren 4koa, Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita 2018ko ekitaldian eman diren laguntzen onuradunen zerrenda. Laguntza horiek Turismo-enpresen sorkuntzari eta lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko programa arautzen duen Aginduak ezartzen duen esparruan eman dira.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negoziario berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea da, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin; halaber, haien kalitatea hobetu nahi da eta turismo jasangarriko eta eskuragarriko eredu baterantz bideratu, baldin eta diruz laguntzeko honako ildo hauetan tokirik badute:

- turismo-negoziario eredu berriak sortzea;
- turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

ILDOA	Aurkeztutako eskaerak	Artxibat uak	Ukatuak, araudia ez betetzeagatik	Onetsiak	Aurkeztutako inbertsioa	Onartutako inbertsioa	Dirulaguntza
Ekintzaitzeta	23	1	17	5	1.668.191,73	216.934,40	66.759,29
Lehiakortasuna hobetzea	150	5	54	91	5.810.005,35	2.394.871,28	538.803,23
GUZTIRA	173	6	71	96	7.478.197,08	2.611.805,68	605.562,52



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ekintzailletza eta ekimen berrien ezarpena bultzatzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	90	5
Sortu/mantendutako enplegua	1300	8
Eragindako inbertsioa	1.600	325.088
Egungo turismo-enpresak eskarien baldintza berrietara egokitzen eta moldatzen laguntzea:		
Diruz lagundutako enpresen kopurua	160	91
Sortu/mantendutako enplegua	1.900	1.384
Eragindako inbertsioa	6.000.000	3.324.842

Magnitude guztietan aurreikusitakoaren eta lortu nahi zen emaitzaren arteko desberdintasuna laguntza programa aldatzeari egotziko genioke, bai laguntzaren xede izan diren inbertsio tipologiari dagokionez, eta, batez ere, horiek egiteko espazio eta denborari dagokionez ere; hau da, proiektuak laguntza-eskaera aurkeztu aurretik egikaritu eta ordainduta izatetik (ondorioz horietako gehienak deialdiko aurreko ekitaldian egikaritzen ziren), deialdiko urtean egikaritu beharreko inbertsioak dituzten proiektuetara pasa gara. Aldaketa horrek laguntza eskaera asko atzera botatzea ekarri du, inbertsioak 2017an egin zituztelako.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak – CTP 2018

2.- Araua.

AGINDUA, 2018ko ekainaren 19koa, turismo, merkataritza eta kontsumoko sailburuarena, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko 2018. urteko laguntzen (CTP programa) deialdiaren oinarriak arautzen dituena (2018ko ekainaren 27ko EHAA, 123. zk).

3.- Programaren araua, deialdia eta (EHA)ri Hiperesteka).

Programaren araua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803325e.shtml>

Emate-erabakia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900208e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xede hauek ditu agindu honek: Euskadiko turismo-produktuak diseinatzen eta martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzen duten proiektuen garapena sustatzeko laguntzen deialdia egitea eta laguntza horiek arautzea, eta, Euskadiren turismo-kokapena sendotzen laguntzen duten ekitaldiak bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskaerak		Turismo-sektoreko enpresei turismo-produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea		Turismoaren arloko enpresek eta elkarteek antolatutako ekitaldiak bultzatzea Euskadiren irudia eta turismo-kokapena sendotzen ez ezik ostatu-gauen kopurua handitzen ere laguntzen badute
Aurkeztutakoak	Onartutakoak	Lagundutako proiektuen kop.	Eragindako inbertsioa	Lagundutako ekitaldien kopurua
75	45	29	2.631.755,85	16

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

• Turismo-sektoreko enpresei laguntzea:		
Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako proiektuen kopurua	60	29
Eragindako inbertsioa	4.275.000	2.631.755,85
• Ekitaldiak laguntzea:		
Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako ekitaldien kopurua	15	16



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hirigune - Hiri merkataritzaren lankidetzaren dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntza-programa

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 31koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen Hirigune programa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua: Agindua. 2018ko maiatzaren 31koa. 2018ko ekainaren 9an, EHAA-n, 111 zenbakia.-

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803012e.shtml>

Emate-erabakia: Ebazpena, 2019ko otsailaren 21ekoa, Merkataritzako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jakinarazten baita Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2018ko maiatzaren 31ko Aginduan arautu ziren dirulaguntzen 2018ko ekitaldiko onuradunen zerrenda; agindu horren bidez arautzen da Hiri Merkataritzaren Lankidetzaren, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen Hirigune programa (EHAA-n 2019ko otsailaren 27an 41 zenbakia

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1901068e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua zera da, hiri-inguruneetako merkataritzaren lankidetzaren dinamizazioko estrategiak garatzen laguntzea, suspertu beharreko hiriguneetako merkataritza-lehiakortasuna eta posizionamendua hobetzera bideratutako estrategiak, alegia.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen eta Merkataritza Enpresen arteko lankidetzaren egitura publiko eta pribatuak sortzeko aukera bultzatzea, udal-inguruneei hiri-ekonomiako eremu gisa balioa emango dieten zonako estrategiak garatzearen.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

7. Kapitulua- Udalak:

- Aurrekontu programa: Ordainketa kreditua: 1.267.030 euro./ Konpromiso Kreditua: 543.012,86 euro.

Eskaerak:

- Udalen eskaera zenbatekoa: 49 Udal

- Eskatutako proiektuak: 57 Jarduera

- Eragindako inbertsioa: 22,39 miloi euro



Diruz-lagundutakoa:

- Diruz-lagundutako udalak: 48 Udal
- Proiektu diruz lagungarriak: 54 proiektu.
- Emandako dirulaguntza: 1.431.609,77 euro.

4. Kapitulua- Elkartek:

- Aurrekontu programa: Ordainketa kreditua: 2.373.826,70 euro.

Eskaerak:

- Elkarten eskaera zenbatekoa: 70 Elkarte
- Eskatutako proiektuak: 477 Jarduera
- Eragindako inbertsioa: 2,42 miloi euro

Diruz-lagundutakoa:

- Diruz-lagundutako udalak: 70 Elkarte
- Proiektu diruz lagungarriak: 453 proiektu.
- Emandako dirulaguntza: 1.657.812,59 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Elkarte kopurua	74	70
Sinatutako kolaborazio akordio kopurua	47	49



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programa 2018

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 23koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Merkataritza-saltokiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2018ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- Programaren araua: Agindua. 2018ko maiatzaren 23koa. 2018ko maiatzaren 31n, EHAA-n, 104 zenbakia.-

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802868e.shtml>

- Emate-erabakia: Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 7koa. –EHAA-n 2019ko urtarrilaren 15ean 10 zenbakia

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900207e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko merkataritza-establezimenduak, berrikuntzaren eta kudeaketa-tresnak eta azpiegiturak hobetzearen bidez, modernizatzea bultzatzea da Agindu honen xedea.

Enpresak edo merkataritza establezimenduak hiru urteko antzintasuna izango du, gutxienez.

Diruz lagunduko diren inbertsioak hauek dira:

- a) Lokala, altzariak eta merkataritza-jarduera gauzatzeko behar diren ekipamenduak berrantolatzeko eta modernizatzeko inbertsioak, gehi kanpoko zein barneko elementuak, hala nola errotuluak. Diru-laguntza jaso ahal izango dute merkataritza-jarduerari osagai berritzailea, balio erantsia edo Merkataritzako Gida Planarekin bat datorren berezitasuna ematen dioten aktiboetako inbertsioek. Diruz lagundu ahal izateko, gutxienez 5.000 euroko inbertsioa egin beharko dute
- b) Baskula elektronikoak, ekipo informatikoak, horietarako aplikazioak eta osagarriak, betiere baldin eta merkaturatze-prozesuetan txertatuta badaude edota enpresaren kudeaketarako badira. Ekipo informatikoetako inbertsioa mugatuko da, eta, gehienez ere, ekipo informatiko oso batek jasoko du diru-laguntza merkataritza-saltoki bakoitzeko, baita periferiko mota bakoitzeko banak ere. Ez dute diru-laguntzarik inola ere jasoko telefono mugikorrek, ezta webguneak sortu, garatu edo ezartzeko lanek ere. Diruz laguntzekoa izango da, ordea, merkataritza-saltokiaren webgunea gailu mugikorretara egokitzea. Diruz lagundu ahal izateko, gutxienez 1.500 euroko inbertsioa egin beharko dute.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu kreditua:	2.038.000,00
Jasotako eskaera:	602
Ebazpen positibo:	349
Emandako zenbatekoa:	1.054.054,48 €

Emandako zenbatekoa Lurralde Historikoaren arabera honakoa da:

Araba	86.355,58 euro
Gipuzkoa	468.608,77 euro
Bizkaia	499.090,13 euro

2018an, Palanka efektuaren edo inbertsioaren gaineko finantzaketa propioaren bilakaera nabarmen positiboa izan da; emandako euro bakoitzak 9,2 euro gehigarri sorrarazi ditu; 2017an, aldiz, 8,5 euro sorrarazi zituen. 2017arekin alderatuz, sortutako batez besteko inbertsioa jaitsi egin da zertxobait. Jaitsiera, halere, ontzat eman behar da, 2018ko aginduan inbertsio maila handienetakoa zuten zenbait epigrafe ezabatu dira-eta, hala nola, farmaziak, motordun ibilgailuen salmenta eta gisakoak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Jasotako eskaera	1.250	602



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Merkataritzako bulego teknikoetarako laguntzak - 2018

2.- Araua

Agindua, 2018ko uztailaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Merkataritzako Bulego Teknikoei zuzendutako 2018ko ekitaldirako laguntza-programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Agindua, 2018ko uztailaren 30koa. EHAA-n, 2018ko abuztuaren 13an, 155 zenbakia.-

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804208e.pdf>

- Ebazpena, 2019ko martxoaren 20koa, Merkataritzako zuzendariarena. Honen bidez, argitaratzen da 2018ko ekitaldian Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2018ko uztailaren 30ko Aginduan arautu ziren dirulaguntzen onuradun izan direnen zerrenda; agindu horren bidez, Merkataritza Bulego Teknikoentzako laguntzak ezarri eta arautu ziren. EHAA-n 2019ko apirilaren 1(e)an, 63 zenbakia.-
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1901638e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Merkataritza-banaketaren sektoreari, langile kualifikatuen bidez eta doan, laguntza teknikoko zerbitzua ematea da programaren helburua. Laguntza hauen erakunde onuradunak merkatarien elkarte, federazio edo taldeak, Udalak edo Udalek sustatutako garapen-erakundeak izan daitezke.

Merkataritzako bulego teknikoen bidez, aholkularitza espezializatua eskaini, berrikuntza, kalitatea eta teknologia berriei lotutako prozesuak bultzatu eta udal-mailan edo banaketa-katean lankidetzaz-estrategiak sustatu nahi dira.

Bulegoaren zerbitzua beteko duen pertsona urtebetez lanaldi osoan kontratatzeko kostuen % 86,7ra arte estal dezake laguntzaren zenbatekoak. Bulego bakoitzak 38.500 euroko diru-laguntza jasoko du gehienez.

Laguntzak emateko prozesua publikitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioei jarraituz egindako lehiaketa da.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programa: Ordainketa kreditua: 1.447.600euro./ Konpromiso Kreditua: 361.900 euro.

- Proiektu diruz lagungarriak: 47 bulego.
- Emandako dirulaguntza: 1.649.693,61 euro.
 - Araba: 8 bulego - 308.000,00 euro.
 - Gipuzkoa: 16 bulego - 616.000,00 euro.
 - Bizkaia: 19 bulego - 725.693,61 euro.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako bulegoak:	47	43



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko bekak -2018

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 3koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken programa arautu eta horretarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko uztailaren 3koa. -2018ko uztailaren 12koa, EHAA-n, 134 zenbakia

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/07/1803613e.shtml>

Ebazpena, 2018ko abenduaren 18koa, Merkataritzako zuzendariarena. Honen bidez, onuradunen zerrenda jakinarazten da, merkataritza-banaketa kudeatzeko teknikariak prestatzeko beken programa arautu eta horretarako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2018ko uztailaren 3ko Aginduan ezarri ziren laguntzei dagokienez. -2019ko urtarrilaren 8koa, EHAA-n, 5 zenbakia

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900207e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua merkataritza-banaketan espezializatutako teknikarien prestakuntza da. Horretarako, 180 orduko prestakuntza teorikoko ikastaro bat eskaintzen da; dagokigun sektorean espezializatutako pertsonak ematen dute ikastaroa eta orain arte Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak antolatu izan du, betiere gaian espezializatutako irakasleen nahiz merkataritza-banaketaren sektoreari lotutako irakaskuntzatik kanpoko pertsonen laguntzarekin.

Laguntzen esleipendunak Merkataritza Dinamizatzeko Bulegoetara edo banaketaren arloarekin zerikusia duten erakundeetara bideratzen dira 9 hilabetez. Erakunde horietan garatutako lanarekin eta jasotzen duten prestakuntza tutorizatuarekin jakintza-maila handia lortzen dute merkataritza-banaketaren sektorean, prestakuntza teorikoa prestakuntza praktikoarekin osatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu kreditua: 348.050,00€

Ordainketa-kreditua 2018: 33.750,00€

Konpromiso-kreditua 2019: 314.300,00€

Jasotako eskaerak: 22

Emandako bekak: 13



Emandako zenbatekoa:	146.250,00€
Ordainketa-kreditua 2018:	14.625,00 €
Konpromiso-kreditua 2019:	131.625,00 €

Eskaeraren kopuruaren dagokionez, 2018an 29 beka egon ziren, 22 eskaera aurkeztu zuten haien artean bakarrik 13 lagun parte hartu zuten eta derrigorrezko prestakuntza ikastaroa bukatu zuten. Espero genituen emaitzak ez direla lortu agerikoa da. Kausa horien analisisia egin ondoren, komunikazioa ez dela eraginkorra eta deialdiaren datak oso egokiak ez direla ondorioztatu zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka kopurua	29	13



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Merkataritzaren alorrean autonomoen, enpresen eta udalerrien ekintzailtza sustatzera bideratutako 2018ko laguntza-programa

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 2koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez merkataritzaren alorrean autonomoen, enpresen eta udalerrien ekintzailtza sustatzera bideratutako 2018ko laguntza-programarako arauak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

- Programaren araua eta deialdia: Agindua. 2018ko urriaren 2koa. 2018ko urriaren 9 an, EHAA-n, 4939 zenbakia.- <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/10/1804939e.pdf>

- Emate-erabakia: Ebazpena, 2019ko apirilaren 15ekoa. –EHAA-n 2019ko apirilaren 25ean 78 zenbakia <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/04/1902008a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da merkataritza-ekintzailtza bultzatzea, jarduketa hasten duenari zein handitzen duenari eta udalen jarduketa-proiektuak gauzatzen laguntzeko, betiere berrikuntzaren eta berezitasun komertzialaren eta jarduketa gauzatuko duten hiri-inguruneetan merkataritza-enpresak ezarri eta kokatzera bideratutako estrategiak garatzeko testuinguru batean, esku hartuz ez EAeko erdiguneetan soilik, baizik baita auzoetan ere –auzo berrietan, zaharkituetan zein degradatuetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- Linea: 7. Kapitulua- Udaletxeak:-
 - Aurrekontu programa: Ordainketa kreditua: 840.000 euro./ Konpromiso Kreditua: 360.000 euro.
 - Proiektu diruz lagungarriak: 20 proiektu.
 - Emandako dirulaguntza: 1.025.985,33 euro (Ordainketa kreditua: 718.189,73 euro, Konpromiso Kreditua: 307.795,60 euro)
- Linea: 4. Kapitulua- Autonomo eta enpresak:-
 - Aurrekontu programa: Ordainketa kreditua: 1.000.000 euro. Turismo eta Merkataritzako Sailburuordearen ebazpenaren bidez handituta.
 - Jasotako eskaerak: 569 eskaerak.
 - Emandako dirulaguntza eta eskaerak: 1.895.426,37 euro:
 - Araba: emandako eskaera: 8 . 101.052,60 euro.
 - Gipuzkoa: emandako eskaera: 82 . 779.649,29 euro.
 - Bizkaia: emandako eskaera: 131 . 1.014.724,48 euro.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Jasotako eskaera:		
- Udaletxeak	10	20
- Autonomo eta enpresak	55	569